

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Jandako egunak

VATIKANOA, 1582ko urriaren 5a. Ez zen ezertxo ere gertatu. Eta hilaren 6an ere ez. Ezta 7an, 8an eta hurrengoetan ere. Ez Vatikanon Hirian, ez Erroma osoan, ez beste inon. Urriaren 15a bitarteko hamar egunetako efemerideak hutsik daude 1582ari dagokion laukian. Zergatik? Egun horiek ez zirelako existitu, jan egin zituztelako, urriaren 4aren biharamuna urriaren 15a izan zelako.

Eliza katolikoa nagusi zen Europako herrialdeetan, urte horretan bertan ezarri zuen Gregorio XIII.a Aita Santuak bere izena daraman egutegia, gaur egun erabiltzen duguna. Kosta egin zitzaion eliza katolikoari egutegi juliotarra erreformatzea, baina Julio Zesarren egutegiko urtea benetakoa baino hamaika minutu eta hamalau segundo luzeagoa zen, eta horrek zekartzen arazoak saihesteko ekin zion Aita Santuak erreformari.

Lugi Lilio kalabriar mediku eta filosofoak urte batzuk lehenago proposatutako ereduari jarraiki egin zuten aldaketa. Batetik, urtearen iraupena finkatzeko orduan, Alfonso X.a Jakintsuak emandakoa hautatu zuten: 365 egun, 5 ordu, 49 minutu eta 16 segundo. Bestetik, egutegi juliotarrak benetakoarekin zuen aldea desagerrarazi behar zuten. Horretarako, urte bisestuen sistemari eutsi zioten, baina aldaketa bat erantsiz: 100en multiploak diren urte bisestoez azabatzea erabaki zuten, lehen bi zenbakiak lauren multiploa direnean izan ezik. Argiago esateko: 2000. urtea bisestua izan zen, baina 2100, 2200 eta 2300 ez dira izango.

Benetako urtearen eta urte juliotarren arteko aldea (hiru egun 402 urteror) ia guztiz saihestu zuten horrela.

Baina iraganeko zorrak kitatzea falta zen. Zer egin Julio Zesarren garaietatik ordura arte pilatutako soberakinekin? Apurka-apurka banatu ala denak batera jan? Hamar egun

zeuden soberan eta hamar urte bisestuko jauzia egiteko aukera zegoen; huraxe zen Lilioren proposamena eta 40 urtetan arazoa konpondutaegongo zen. Baina egun horiek bat-batean desagerraraztea erabaki zuten.

Avilako Santa Teresa 1582ko urriaren 4an hil zen eta biharamunean ehortzi zuten, hilaren 15ean alegia. Santa Teresaren bizitzan bitxikeria baino ez dena, ordea, arazo ederra izan zen bizirik zeudenentzat. Arazo administrazioak agerikoak

dira: 21 eguneko hil bateko soldatak, errentak eta bestelako kontuak moldatu behar izan zituzten. Baina eragin psikologikoa are nabarmenagoa izan zen. Nekazariak gehiengo ziren gizarte hartan, elizak hamar egun lapurtu nahi zizkiola pentsatu zuen askok. Mendeak zeramatzen elizak nekazarien ondasunak bereganatzen eta, hori gutxi balitz, denbora ere lapurtu nahi zieten!

Erreforma Aita Santu katolikoak ezarri zuela-eta, hasieran herrialde protestante eta ortodoxoek ez zuten egutegi berria onartu. Hala, hainbat mendetan iraun zuen herrialde batzuen eta besteen egutegien arteko desfaseak. Esaterako, Cervantes eta Shakespeare ez ziren egun berean hil, data berean hil arren. Cervantes, jakina, hamar egun lehenago hil zen. ■



Gregorio XIII.a Aita Santuak hartu zuen egutegi juliotarra erreformatzeko erabakia.

ARRASTOAK

BIKINGOEK bezala nabigatzea oso gaitza dela frogatu dute berriki Ipar Itsasoan. Ontzi bikingoen errepika zehatza erabili dute horretarako. Sea Stallion izenez bataiatutako ontziak (argazkian) 1.600 kilometro inguruko bidaia egin du Roskilde fiordotik (Danimarka) Dublinerara. Horretarako Ipar Itsaso zakarra eta Eskoziako kostalde arriskutsua zeharkatu dituzte bikingoek bezala, haizearen bultzada hutsez.



Roskilden hondoratutako ontzi bikingo baten arrastoak topatu zituzten 1962an. Irlandar bikingoek 1042. urte inguruan eraikitako ontzia zen eta berau izan dute eredu Sea Stallion egiteko. Haritz zuraz egindako ontziak ederki egin dio aurre erronkari, Erdi Aroan bere tankerakoek bezalaxe. Tripulazioa, aldiz, Aro Garaikidean ahulxeago dagoela dirudi. Ontzien bizkarrean lo egin ohi zuten bikingoek eta gaurko marinela ez daude horretan ohituak. Hainbatek hipotermiak jota utzi behar izan zuen abentura. Gainera, tripulazio osoarentzako janaria garraiatzeko nahikoa lekuri ez zuten. Horregatik ezin izan dute bidaia eskalarik gabe burutu.